

EUSKAL-ERRIA



Tubal aurren euskal izkera
mintzatutzero
zan etorri,
arrek zuben gure lurrera
zorionera
au ekarri,
baso mendi ta zelaitara,
danetara,
pozgarri,
legetzat zigun ark guri jarri.

Mendi tontor, basamortuan,
artzai lekuan,
bazarretan;
echol zarrak duben chokuan,
arkaitz zuluhan,
ibayetan;
euskal izkera da goyan,
tabarruan,
danetan;
mintzatzen dira denak benetan.

Itzas gizon chit maitatziyak,
aundi chikiyak,
itsasuan;
euskaraz mintza dira guziyak,
aiñ egokiyak,

batelchuan;
fedo onarekiñ jantziyak,
chit garbiyak,
barruan;
pozkidaz bizi dira munduan.

Ama batel; bere aurchoa,
bildochachoa,
du maitatzen;
sustrayetik titi gozoa,
zumo osoa,
diyo ematen;
euskal izkeran kantachoa,
ederchoa,
esaten;
gero berak jakiñ dezaten.

Zazpi seme benetakuak,
odolekuak,
gera anai.
Auñemendi¹ ingurukuak,
jayotakuak,
gabiltz ernai;
euskalzale biyotzekuak,
maitatuak
ere bai;
ausardiz azaldutzen gera non nai.

JOSÉ ARTOLA.



(1) Pirineos.